

Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak aztertzen

Tesiaren egilea: Irati Urreta Elizegi

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Saila/Institutua: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Doktorego-programa: Euskal hizkuntzalaritza eta Filologia

Jakintza-arloa: Hizkuntzalaritza

Tesi-zuzendaria: Oroitz Jauregi eta Miren Lourdes Oñederra

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honetan euskararen ahoskera eta hizkera-mailak dira aztergai, eta euskararen ahoskeraren hizkera-mailaren arabera izan daitekeen aldakortasuna aztertzea da helburua. Euskal hiztunek hizkera-maila ezberdinetan dituzten ahoskera-joeren lehen hurbilketa bat egin nahi da, hizkera-mailaren arabera hiztunek ahoskera aldatzen duten edo ez ikertzeko eta, aldatzen badute, zein norabidetan, zerk eraginda edo zergatik aldatzen duten jakiteko.

Horretarako, lehendabizi, euskararen ahoskeraren eta hizkera-mailen inguruko oinarrizko alderdiak azaldu dira: hizkuntzen ahoskeren estandarizazioa, euskararen ahoskera estandarizatzeko ibilbidea, Euskaltzaindiak 1998an ahoskera zaindurako ateratako *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua* (EBAZ) araua eta hizkera-mailak, besteak beste.

Jarraian, Ikaztegietako (Gipuzkoa) eta Baigorriko (Behe Nafarroa) 16 hiztunen bi hizkera-mailatako (arduragabea eta zaindua) ahoskerak bildu eta aztertu dira. Hiztunen hautaketan 3 ardatz nagusi hartu dira kontuan: eremu dialektala (Ikaztegieta/Baigorri), euskara ikasteko modua (etxean ikasia/ez etxean ikasia) eta adina (20-30 eta 50-60 urte bitartekoak). Aldagai horiek ahoskera-aldakortasunean eragina izan dezaketela aurreikusi da. Ahozko jardunez gain, galdetegiak egin dira, hiztunek ahoskera batzuen inguruan dituzten uste eta jarrerak ezagutzeko; izan ere, emaitzek berretsi bezala, hiztunek dituzten iritzi eta pertzepzioek eragina dute euren ahoskera-hautuetan eta horiek, era berean, hizkera-mailaren arabera ahoskera-aldakortasuna baldintzatu dezakete. Beraz, ikerlanean alderdi fonikoak alderdi soziologiko eta psikologikoekin uztartu dira, euskararen ahoskeraren eta hizkera-mailen arteko gertakariak aztertu eta ikerlanaren abiapuntu izan diren bi galderari erantzun ahal izateko: zer gertatzen da normalizazio-bidean dagoen hizkuntza baten fonologia-sisteman, normalizazio-aro horretan? Eta estandarizazioak zer eragin du gertatzen den horretan?

Datuen azterketan, EBAZ araua erreferentziazat hartuta, hiztunek arauan agertzen diren bokalak, bokal-bilkurak, kontsonanteak eta kontsonante-bilkurak bi hizkera-mailetan nola ahoskatzen dituzten erkatu da. Horrekin batera, hizkera

zainduan EBAZ araua zenbateraino betetzen den neurtu da eta galdetegietako informazioa erabili da erkaketa osatzeko.

Emaitez erakutsi dute hizkera-mailaren araberako ahoskera-aldakortasuna zenbait eragilek baldintzatua dela, hain zuzen, eragile orokor nagusiak identifikatzeko balio izan du bereziki ikerlanak. Euskara ikasteko modua, idatzi bezala irakurtzeko joera eta maiz ahoskera zainduarekin lotzen den artifizialtasun-sentipena izan dira aldakortasunaren baldintzatzaile behinenak. Halaber, ikerlanak etorkizunean euskararen ahoskerari eta hizkera-mailei lotuta izan daitezkeen erronkei buruzko gogoeta zabaltzen du. Beste alderdi batzuen artean, nabarmendu da irakaskuntzak egiteko garrantzitsua beteko lukeela hiztunei euskaraz ahoskatzen irakatsi eta hizkera-mailen araberako aldakortasuna modu kontzientean lantzeko.